

## FUNTZEZKO BALIABIDEAK

Sozietate mugatua sortzea aukeratu dugu, sortzeko kapital gutxien behar delako. 5 sozio izango gara eta guztiok kapital berdina jarriko dugu eta denok egingo dugu lan gure enpresan.

- Baliobide fisikoak:

- Bilbon 300 m<sup>2</sup>-ko lokala izango da.
- Correos izango da gure garraio ofiziala
- Biltegia: Berriz eta Zaldibarren artean dago.
- Biltegia, 450 m<sup>2</sup>-ko lokala izango da.



- Giza baliabidea:

Gure enpresan, esan bezala, 5 sozio gara: Jessica, Goiuri, Asier, Angela eta Andoni eta bosten artean banatuko ditugu gure egin beharrak. Momentuz, Correos kontratatu dugu eta beharren arabera beste enpresa desberdinak kontratatuko ditugu.

Sail hauetan banandu dugu gure enpresaren betebeharrak:

- Garraioa: Asier, helbide hurbil batera bidali behar bada paketeren bat Asier izango da enkargatua pakete hori eramatera helbidera.
- Administrazioa: Goiuri, enpresaren informazio-zirkuituetan barneko edo kanpoko dokumentuak edo komunikazioak tramitatzea. Jasotako aginduetatik, lortutako informaziotik eta/edo hautemandako beharretatik abiatuta, dokumentuak eta komunikazioak prestatzea. Gaurik gure dendako harreran egingo du lan.
- Marketing: Angela, marketing-estrategiak planifikatzea eta ezartzea. Marketing-eko kanpainak eta sustapenak zuzentzea. Helburuak ezartzea eta marketinean oinarritutako jardueren aurrerapena kontrolatzea.
- Finantzak: Andoni, enpresaren baliabideen erabilera zuzena bermatzea, urteko aurrekontua diseinatzea eta gainbegiratzea. Sarrerak eta gastuak proiektzioen bidez balioestea. Aldian-aldian emaitzen txostenak egitea. Produktuei eta zerbitzuei eragin diezaieketen ezbehar ekonomikoei aurrea hartzea. Finantza-konpromisoen jarraipena egitea (zergak, nomina, zorrak, hornitzaileei egindako ordainketak, etab.). Erakundearentzat onuragarriak diren inbertsio-aukerak identifikatzea. Barne-auditoriak gainbegiratzea. Finantza-komunikazioa kudeatzea. Finantzaketa-metodoak ebaluatzea eta lortzea.
- Giza baliabideak: Jessica, langileen antolamendua eta plangintza, langileen jarduna eta kontrola ebaluatzea, laneko giroa eta gogobetetzea kontrolatzea, lan harremanak sustatzea.

